

MATTIN  
ZAKU  
AURPEGI




BERTAKOTZE SORALUZE



SORALUZKO UDALA

**Bazen behin Soraluze herrian, inork aurpegia inoiz ikusi ez zion haur bat, Mattin Zaku Aurpegi izenekoa.**

*Érase una vez en Soraluze un niño llamado Mattin Zaku Aurpegi, al que nunca nadie le había visto la cara.*



**Egun batean, Mattinek sorgindutako labirinto bat zeharkatu behar zuen, eta labirintoaren barruan erraldoi bat, sorginak eta mamuak bizi ziren. Labirintoan sartu eta sorginak ikusi zituen. Ez zioten esan nora zihoazen Mattini, baina honek jarraitu egin zituen.**

*Un día, Mattin tenía que atravesar un laberinto encantado y dentro del laberinto vivían un gigante, brujas y fantasmas. Entró en el laberinto y vió a las brujas. Ellas no le dijeron a donde iban a Mattin, pero este la siguió.*



**Mattinek zeharkatzea nahi ez zuten horma batera iritsi ziren. Une horretan berak argi batzuk ikusi zituen, haien atzetik joan zen, eta labirintoa zeharkatzean etxe zoragarri batekin topo egin zuen, bertatik mamuak irteten ziren. Aipatutako etxe hau bere ikastetxea zen.**

*Llegaron a una pared que no querían que Mattin atravesara. En ese momento él vió unas luces, las siguió y al atravesar el laberinto se encontró con una casa encantada de donde salían fantasmas. Esta casa mencionada resultaba ser ser su colegio.*

**Eskolatik irtetean, bere familiarengana joan zen. Familiak ere Zaku Aurpegia zuen. Afaritan armiarmak, kakalardoak, zomorroak eta giza gorputzak jaten zituzten. Afalostean, Mattin parkera joaten zen beti.**

*A la salida del cole fue a donde su familia. La familia también resultó ser Zaku Aurpegi. De cena comían arañas, escarabajos, bichos y cuerpos humanos. Después de cenar Mattin siempre iba al parque.*

**Parke horretan gauza pozoitsu bat zegoen, baina berak janez gero ez zen hiltzen. Lagunei esaten zien ukituz gero pozoitu egingo zirela, eta haietako batek, sinistu ez zuenez, Mattin ukitu eta pozoitu egin zen.**

*En ese parque había una cosa venenosa que si él se la comía no se moría. Les decía a sus amigos que si le tocaban se envenenarían y uno de ellos, al no creérselo, tocó a Mattin y se envenenó.*



**Hurrengo egunean, Gasteru beldurgarri batera joan zen (gazteleku baten antzeko tokia dena, baina beldurgarria). Dena labezomorroz, hezurrez, mamuz, banpiroz eta esku zombiez beteta zegoen. Zombie eskua ikustean, janaria zela pentsatu zuen, eta jan egin zuen. Oso ondo sentitzen zen, sabela beteta.**


*Al día siguiente fue a un Gasteru monstruoso (que es un gazteleku pero monstruoso). Todo estaba lleno de cucarachas, huesos, fantasmas, un vampiro y una mano zombie. Al ver la mano zombie, pensó que era comida, así que se lo comió. Se sentía muy bien, con la tripa muy llena.*

**Zombieren eskua jan ondoren, Gasterutik irten eta bere etxera itzuli zen, modu txarrean sartu zen eta bere aitak esan zion: "Orain atera berriro eta sartu behar den bezala!".**

*Después de comerse la mano de zombie salió del Gasteru y fue de nuevo a su casa, entró de mala manera y su padre le dijo: "¡Ahora mismo sal de nuevo y entra como es debido!".*

**Une horretan, amak jateko deitu zuen Mattin, baina ez zen gose, gauza pozoitsu bat eta esku zontzia jan baitzituen.**

*En ese momento, su madre lo llamó para comer, pero no tenía hambre porque se había comido una cosa venenosa y la mano zombie.*





**Lotara joan eta hurrengo egunean kalera joan zen. Orduan, parkeko bere lagunarekin topo egin zuen, gorputz osoan odola zeriola, eta esan zion: "Zer ertatzen zaizun laguna!?", eta hark erantzun zion: "Atzo pozoitu egin ninduzun eta gaur odola ateratzen zait gorputzetik", zontzien ahotsarekin. Mattinek laguna hartu eta etxera eraman zuen (Mattinen etxera). Gero, sendatu egin zuen, jaten eman zion, eta, azkenik, ostikoz bota zuen etxetik.**

*Se fue a dormir y al día siguiente se fue a la calle. Entonces se encontró con su amigo el del parque con sangre por todo el cuerpo y le dijo: "¿Amigo, qué te pasa?!" a lo que él contestó: "Ayer me envenenaste y hoy me sale sangre por el cuerpo" con voz de zombie. Mattin cogió a su amigo y lo llevó a su casa (a la casa de Mattin). Más tarde, lo curó, le dio de comer, y por último le echó de casa con una patada.*

**Laguna korrika itzuli zen Mattinen etxera eta bere zombie buruarekin atea jo zuen boing, boing, boing. Burua erori zitzaion eta Mattinek atea ireki zuen bere lagunaren tranpan eroriz. Lagunak jostailu guztiak lapurtu zizkion eta Mattinek etengabe esaten zion: "Ez eraman nire jostailuak!", bere atzetik korrika zihoala.**

*El amigo volvió corriendo a casa de Mattin y golpeó la puerta con su cabeza de zombie boing, boing, boing. Se le cayó la cabeza y Mattin abrió la puerta cayendo en la trampa de su amigo quién le dió una patada y entró en su casa y le robó todos los juguetes. Mattin no paraba de decirle: "¡No te llesves mis juguetes!" mientras corría detrás de él.*



**Gero etxera itzuli zen, amari dena kontatu zion eta honek nahi zituen jostailu guztiak lortu zizkion. Mattinek jostailu hauek afaltzeko jan zituen.**

*Luego volvió a casa, se lo contó todo a su madre y esta le consiguió todos los juguetes que quería. Mattin se tomó estos juguetes para cenar.*

**Afaldu ondoren kalera irten zen eta mundu guztiari kontatu zion zer jan zuen afaltzeko, bere jostailu berriak!. Hau entzutean, denak izoztuta geratu ziren, estatuak bezala. Gauean, jende ezezagun asko lurretik irten zen eta mamu bihurtu ziren. Orduan Mattin Zaku Aurpegiri eraso zioten, pertsona haien jostailuak ere jan zituelako afaritan eta oso haserre zeudelako.**

*Después de cenar salió a la calle y contó a todo el mundo lo que comió para cenar, isus nuevos juguetes!. Al oír esto, todos se quedaron helados, como estatuas. Por la noche, mucha gente desconocida salió del suelo y se convirtieron en fantasmas. Entonces atacaron a Mattin Zaku Aurpegi porque también se comió los juguetes de aquellas personas y estaban muy muy enfadadas.*

**Egoera honek, mamuen eta Mattinen arteko borroka baten hasiera ekarri zuen. Mattin Zaku Aurpegik, mamuak jo zituen, eraso egin zien eta dutxatik salto egin zuen. Mamuek ere eraso egin zioten, eta Mattinen sekretu handiena ezagutu zuten zakua aurpegitik kendu ziotenean: beldur handia ematen zuen bere aurpegi moztua.**

*Esto terminó en una lucha entre los fantasmas y Mattin. Mattin Zaku Aurpegi pegó a los fantasmas y les atacó y saltó por la ducha. Los fantasmas también le atacaron y descubrieron su secreto mejor guardado cuando le quitaron el saco de la cara: su cara cortada que daba mucho miedo.*



**Hala bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Soralaruzeko plazan!**